



MAISU-MAISTREN ESPEZIALITATE BERRIEN DEKRETUA

ADI! Azkenean, eta STEE-EILASetik hainbestetan aldarrikatu dugun bezala, badirudi espezialitateen dekretua martxan jarri dela eta, bertan, habilitazioak titulazio bidez nola lortu daitezkeen agertzen da.

Azaroaren 9an, argitu da BOE-n: RD 1594/2011, zeuden habilitazioen ordeztu maisu maistren kidegoko espezialitateak zehazten dituena.

1. Hauexek dira **espezialitateak**: LH, HH, GH, MUS, EUS, PT, AL, ING, FR, ALEM
2. Espezialitateekin zer/non eman:
 - HHkoek: Haur hezkuntzan bakarrik
 - LHkoek: Lehen hezkuntzan eta Haur Hezkuntzako laguntza 2. zikloan
 - Espezialistek: bere espezialitatea, Lehen hezkuntzan eta HHko laguntza 2. zikloan.
 - Euskarako espezialitatearen kasuan, printzipioz gainontzeko espezialistak bezala izan beharko litzateke, baina ikusi beharko dugu nola aplikatzen duen Nafarroako Departamentuak bere legean.
3. Hezkuntza Saila Erret Dekretu hau aztertzen ari da eta Nafarroara nola egokitu behar duten aztertzen ari dira. Ahoz esan digute **habilitazio eskaera egiteko epe bat irekitzeko asmoa** daukatela azaroaren amaieran edo abendu aldean. Badakigu badagoela jendea orain ari dena eskaera egiten, beraz, hau egiteko eredu bat igortzen dizuegu, zuen titulazio konpultsatuarekin batera aurkeztu beharko litzatekeena (honek ez du ziurtatzen habilitazioa emango denik)
4. **Nola lortu Espezialitateak?**
 - Oposaketaren bidez.
 - Habilitazio berriak eskuratzeko deialdi berezian
 - Titulazioaren bidez
 - Esperientziaz (LH espezialitatean bakarrik): 3 urtez ordutegiaren %30 baino gehiago lan eginez espezialitate horretan eta dekretu honetatik aurrera.
5. Aurtengo Leku Aldatze Lehiaketarako ez dira kontuan hartuko.
6. Hizkuntz eredu anitzak dituzten ikastetxeetan LH eta HHn ingelesez ematen diren arloetan gutxienez B2 maila beharko dela adierazten da, baina Nafarroako Departamentuak ezarriko du hizkuntz eskakizuna, B2 gutxienerako bezala agertzen baita.
7. Garrantzitsua:
 - Karrerako funtzionarioek, 2011ko azaroaren 9a baino lehenago zituzten habilitazio guztiak mantendu egingo dituzte.
 - Data hori baino lehen habilitazioak lortzeko ikastaroak baliagarriak izango dira.
 - 3 hilabeteko epea irekitzen da data hori baino lehen izandako habilitazioak homologatzeko.

Adi egongo gara Nafarroako Gobernuak nola egokitzen duen Dekretu hau Nafarroako ezaugarri bereziak kontutan izanik.